

IPUI SARIKETA (Biarritz-en)

"EUSKAL-KULTURAREN ALDE" deitzen elkargo onek sariketa au antolatzen du, Bilbo-ko euskaldan berri batek, bere eskuetan zabalkiro ipiñi duen diruz.

Sariketa onen baldintzak auetzek dira:

LENGOA: -Sariketa ontar sar ditezke gaurtik asi ta aurtengo "Euskeraren Eguna" rarte, Abenduaren 3'gn. arte alegia, edozein eguneroko edo aldizkarian azalduko diran ipuiak. Beraz, ezin sar ditezke sariketa ontan, aurrez argitara ez dan ipuirik.

BIGARRENA: -Etzaie ipui auei, luzeran mugarik jartzen, baiña ipuien egille edo biltzailleai adierazi nai diegu umeentzat egoki izatea jaramon berezia egingo zaiela. Beraz, zarrak edo berriak, norberak asmatuak edo beste izkeretatik itzuliak izan, guztiak onartuak izango dira.

IRUGARRENA: -Iru sari bereziz sarituko dira artuko ditugun ipuiak: 1'goa, 25.000 (ogeta bost mila) liberakoa; 2'gna. 15.000'koa; eta 3'gna., 10.000'koa. Gaiñera bere esku izango dira epailleak nai ditzaten mila liberako beste sariak ere emateko.

LAUGARRENA: -Ipui guziak, izparringo edo aldizkarietan izen-orde edo pseudonimo batekin azaldu bear izango dira; eta argitara emanda gero ipui auek "Euskal-Kulturaren Alde" bazkunera bialiko dira, zuzenbide ontara: 14, rue Lalanne - Biarritz (Laburdi) B.P. Azal batean sartuta eta bertan nun argitara emanak diran adieraziaz. Azal orren barnean beste bat itxia igorriko da, egille, biltzaillearen edo itzultzaillearen benetako izen eta zuzenbidez.

BOSKARRENA: -"Euskal-Kulturaren Alde" ko buruzagiak epaille izango dira ta beren erabateko epaiak onartzekoak izango dira, alabearrez.

SEIGARRENA: -"Euskal-Kulturaren Alde" elkargoa izango da sariketa ontan sarituko ta aren liburuan argitaratuko diran ipui guztien yabe.